

# Euskarazko Kulturaren Batzarrea

Euskarazko kulturaren sail ezberdinetako eta herri-elkartetako hainbat lagun bilerak ireki batetan kaleratu zen. duela urte erdi, Euskarazko Kulturaren Batzarrearen asmoa (Bergaran, UNEDen, 1983ko martxoak 12 an)

Euskararen normalkuntzaren eta berreskurapen osoaren helburuari begira, euskarazko kultur talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinaziorako abiatu zen Batzarrearen prozesua.

"Euskararen Normalkuntzaren Aldeko Agiria" onartu zen bertan; lau parte zituen: Euskara, Euskal Herriaren Hizkuntza nazionalaren erabateko lehen tasunaren baieztapena; Euskararen egoera larri eta ilunaren egiazapena; Euskararen normalkuntzaren eta berreskurapen osoaren helburuaren Zehaztapena; erakunde ofizial eta publikoek, indar sozialei elkarte herritarrei eta euskaldun guztiei deia, norik bere erantzukizunetik, euskararen normalkuntzarako bideak urra ditzan.

Euskararen egoera legala, instituzionala, soziala eta kulturala agian larriagotu egin delarik, puntu guzti haiek berretsi eta errepikatu egiten ditugu, eta euskal kulturgintzako indar eta elkarte herritarren koordinazioa inoiz baino beharrezkoagoztat jotzen dugu gaur.

Bide horretatik urrats batzu egin dira hiru mailatan: kultur sail bakoitzean; herri eta auzoetan; sailtako eta herrietako talde eta elkarteen arteko koordinazioan. Beti Euskarazko Kulturaren Batzarrea eraikitze bidean...

Bestalde, urte erdi honetan azterketa-lan zabal eta sakon bat bideratu du EKBk, kultur sail bakoitzean, euskalgintzaren egoera eta dinamika, erantzukizunak eta politika, jokabidea eta ekinbidea, eskakizunak eta erreibindikazioak aztertzeko. Oinarri gisa prestaturiko sailtako txostenen inguruan eztabaida irekita dago, denon kritiken eta ekarrien bidez, euskarazko kultur sailen arteko dossierra lantzeko eta osotzeko. Prozesu horixe bultzatzeko eta zabaltzeko izan zen, hain zuzen, Ekainaren 30ean Eibarren eginitako ihardunaldia.

Dossieraren helburua da: Euskararen normalkuntzarako eta berreskurapen osoarako funtsezko abiaburuak eta ardatz nagusiak finkatzea eta Euskarazko Kulturaren Batzarrearen oinarri teorikoak eta jokabideak argitzea eta aurrerabiderako plangintza sektoriala eta orokorra markatzea.

Bergaran kaleraturiko asmoak bere bidea egin du: sakonduz eta zabalduz doa Euskarazko Kulturaren Batzarrea.

Bide horretan, hain zuzen, Iruñean bildu gara, UEUren babesean, Euskarazko Kultur sailtan edo herrietan euskararen defentsarako, normalkuntzarako eta berreskurapen osoarako lanean dihardugun hainbat talde, elkarte eta lagun, EKB bultzatzeko eta antolatzeko.

Euskarazko Kulturaren Batzarrea eratze bide honetan, ondoko puntu hauek argitu, baieztatuz eta finkatu nahi ditugu:

## 1. - Euskararen lehen tasuna

Euskara da Euskal Herriaren hizkuntza nazionala; bera da gure Herria batu eta berreraikitze bide nagusienetarikoa bat. Euskal Herriko biztanleona da euskara, eta inolako talde politiko edo sozialek ez du horren monopoliorik. Guztioi dagokigu gure hizkuntza nazionala mormaltzeko eta berreskuratzeko eginkizuna.

## 2. - "Euskara eta kultura

Kultura osoa eta maila guztietan euskaraz landuz bakarrik lor daitezke euskararen berreskurapen oroa; herri honen eta herritar bakoitzaren kultura adierazteko eta bizitzeko baliagarria izan behar du euskarak.

Euskal kultura, beronen esanahi osoan eta betean, euskarazkoa bakarrik da, hizkuntza bait du kulturak bere adierazpen eta bere adierazpide nagusia: Euskal kulturak, berriz, euskara.

EKB-k garbi dauka euskararen normalkuntza ez dela lortuko, euskara eta euskal kulturaren apologia eradaraz eginaz; horregatik, normalkuntza, euskararen erabilpenaren dinamika sortzen eta sendotzen doan neurrian bakarrik lortuko dela adierazten du, erabiltzen ez den hizkuntza hil egiten bait da.

## 3. - Euskal kultura eta erdal kultura

Euskal kulturgintza gutxietsirik dago gure Herrian, euskara bera menperaturik eta minoritaturik dagoelako. Euskal Herriaren berreraikuntza nazionalak hizkuntza eta kultur aukerabide herria eskatzen du, orain arteko egoera eta dinamika iraultzeko. Nahiz eta jabeturik egon, guzti horrek sarritan euskal kulturaren eta erdal kulturen arteko borroka bidea hartuko duela.

## 4. - Normalkuntzarako plangintza orokorra

Herri honek eta herritar bakoitzak euskara berreskuratzeko eta euskarazko kulturaren osorik bizi ahal izatea da helburua: Euskaraz bizi! Projektu politiko, sozial eta kultura orikor baten bidetik bakarrik lor daitezke hori. Horregatik lehen mailako arazoa dela uste dugu Euskal Herri osoko Administrazioetako erakunde publikoek euskararen normalkuntesku hartzea. Aipaturiko indar, talde eta elkarte herritarrek beren lekua eta parte funtsezkoa izan behar dute plangintza horretan.

Plangintza horretan, kapitulu garrantziko bat bete behar du lanmenduak: zerbitzu eta entrepres publiko nahiz pribatuetakoak.

## 5. - Militantzia eta profesionaltasuna

Euskarazko eta euskal kulturaren, normalkuntzaren, beharrezko da kultur talde eta elkarteen eta edozein kultur langileren profesionaltasuna; baina militantzia nahitaezkoa

dela uste dugu, profesionalismoak ez erortzeko eta herri-dinamika ez itotzeko.

Dena dela, kulturgintzak bide instituzionalak beharrezkoak ditu; baina ez dugu inola ere instituzionalismoan erori behar.

## 6. - Euskararen normalkuntza eta herri-dinamika

Herriarena da euskara kultur dinamika herritarren gainean bakarrik bideratu eta lor daitezke euskararen normalkuntza. Horregatik behar-beharrezkoak dira euskal gizartearen jaberazpena euskararen egoera eta normalkuntza dinamikari buruz, bai eta indar herritarren mobilizazioa euskararen defentsaren eta berreskurapenaren bidean.

Euskal Herriko erakunde ofizial eta elkarte herritarren artean harreman dialektikoa bideratu eta etengabe zaindu behar dela uste dugu, kulturgintzari eta euskararen normalkuntzari buruz. Horregatik, orain arte erakunde ofizialek eramandako kultur eta hizkuntza politika "suplantatzailea" edota "kontrol-zalea" salatu behar dugu. Era berean, euskal kulturgintza "exhibizionistaren" kontra gaude: herriaren kultur bizitza aberastera joan behar du aurrenik kultur politikak, eta ez horren exhibizioa egitera.

## 7. - Indar herritarren mobilizazioa eta koordinazioa

Euskararen normalkuntza eta berreskurapen osoa bideratzeko eta tinko aurrera bultzatzeko, herriaren jaberazpenarekin batera, horren mobilizazioa behar-beharrezkoa ikusten dugu; baina guztion funtsean dago, kulturgintzan diharduten talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinazioa.

8. - Horregatik duela urte erdi abiatutako prozesuari jarraiki, asmo hura gaur benetako plan eta egitarau bihurtu nahi dugula adierazten dugu. Euskarazko kulturaren Batzarrearen prozesua aurrera eraman nahi dugu, euskararen defentsarako, normalkuntzarako eta berreskurapenerako.

9. - Euskal kulturgintzan diharduten sailtako eta gizarteko talde eta elkarte herritarren koordinaziorako zerbitzu eta erakunde zabal eta irekia da EKB Lau hauek biltzen ditugu horren helburuak; a) Euskarari buruz euskal gizarte osoa jaberatzeko; b) Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra eta sektorialak bideratzea eta eragitea; c) Euskal kulturako sailen eta oinarriko elkarte herritarren ekintza bereziak programatzea, koordinatzea eta bateratzea; d) Euskararen eta Euskarazko Kulturaren aldeko eskakizunak erakunde ofizialen eta administrazio publikoen eta indar sozialen aurrean elkarrekin ipintzea eta bultzatzea.

Bide horretatik, gaurtik aurrera Euskarazko Kulturaren Batzarrea (EKB) eraikitzearen prozesua bideratuztaz ematen dugu, eta horretan eskuartu nahi duten euskal kulturako talde, elkarte, erakunde herritar guztiei egiten diegu dei.